

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARTZINIEGAKO UDALA

#### Onestea Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako 2024ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia

Udalbatzak, 2024ko otsailaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Onestea 2024ko gizarte, kultur eta kirol jardueretarako Artziniegako Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak eta deialdia eta horien eranskinak:

#### "2024ko gizarte, kultur eta kirol jardueretarako Artziniegako Udalaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak eta deialdia

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua. Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da Artziniegako Udalak 2024. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko jarduerak, udal programak osatzen dituztenak, egiteko dirulaguntzak emateko erabiliko duen prozedura arautzea. Dirulaguntza horien bitartez, Artziniegako herritarrentzako interes publikoko edo gizarte intereseko jarduerak bultzatuko dira eta, horri esker, Udalak bere jardun eremuetan dauzkan helburuak lortu ahal izango ditu.

Dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Artziniegako Udalak onetsi duen udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

##### 2. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Gastua 2024ko ekitaldiko udal aurrekontuko 330.481.002 eta 341.481.002 aurrekontu partiden kontura egotziko da.

Partida horietarako gehieneko kreditua, eta, beraz, dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko aurrekontuko zuzkidura 10.000,00 euro da.

##### 3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak

2024. urtean egiten diren jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketen eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte sortu diren gastuen ehuneko laurogei izango da.

Dirulaguntza lerro horiek arlo hauetan bana daitezke: Gizarte eta Kultura Ekintza, Kirol Ekintza, Feminismo Arloa eta Ekologia Arloa. Guztiek dituzte diruz lagun daitezkeen kontzeptuak, ondoren zehazten direnak.

Elkarte batek, 2024an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 3.500,00 euro eska ditzake.

Dirulaguntza Artziniegako herritar ororentzako diren eta ohiko bitartekoetan (udalaren whatsapp, udalaren web orria eta kartelak) publizitatea egingo zaien jardueretarako bakarrik izango da.

Dirulaguntza jasotzeko, ezinbesteko betekizuna izango da eskatutako informazio guztia eranstea, bai eta diruz lagundutako jarduerak iragartzeko kartelen ale bana ere, zeinek irizpide hauek bete beharko baitituzte:

- Udalaren logotipoa.
- Euskara txertatzeko bete beharreko hizkuntza irizpideak (nahitaez bete beharreko irizpideak doaz honekin batera).
- Genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

3.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta beharrezkoak direnak (Dirulaguntzei buruzko Legearen 31. artikulua) honako kontzeptu hauengatik:

- Gizarte eta kultura jarduerak (emanaldiak, antzezenak, hitzaldiak, arte eta kultura lehiaketak eta elkartearen jarduerari loturiko prestakuntza ikastaroak eta lantegiak), betiere merkatuko balioarekin bat datozenak.
- Jarduera antolatzen edota gauzatzen eskuzabaltasunez lagundu duten pertsonentzako otorduek, lunchek edo sari ez-ekonomikoez eragindako gastuak; gehienez ere 150,00 euroko gastua onartuko da jarduera bakoitzeko.
- Antolatzen den jarduera zehatzari lotutako kartelen eta zabalkundearen gastuak.
- Kirol txapelketak, erakustaldiak eta mendira irteerak antolatzea, barnean hartuta jarduera gauzatzeko beharrezko diren antolaketa gastuak eta ekitaldi horietan emango diren sariak. Baldin jarduera horietan sariak (inoiz ez eskudirua) eta garaikurrak ematen badira, horietarako eman daitezkeen dirulaguntza ez da urtean 1.800,00 euro baino gehiago izango.
- Elkartearen (eta ez partikular baten) izenean jaulkitako goi mailako ziurtagiri digitalak lortzeagatik edo berritzeagatik sor daitezkeen gastuak (Izenpe, Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria...).
- Federazio fitxak, lehiatzen diren udalerrian erroldatuta dauden pertsonentzat, baldin eta kirol elkarte edo klubak urtean zehar diruz lagun daitezkeen jarduerak egiten baditu udalerrian; gehienez ere, eskaeraren ehuneko 10.
- Diruz lagundutako jarduera egin ahal izateko beharrezkoak diren eta elkartearen xedearekin zuzenean lotuta dauden gastuak.

3.2. Diruz lagundu ezin diren gastutzat hartuko dira honako jarduera hauek:

- Edari alkoholduak.
- Otorduak, laguntzaileentzako eta boluntarioentzako sariari dagozkionak izan ezik, jarduera gauzatzeko gastutzat hartzen baitira. Hizlariei, musikariei eta jarduera egiteagatik kobratzen duten gainerakoei eskaintzen zaizkien otorduak.
- Ostatu gastuak.
- Jarduera piroteknikoak.
- Dietak.
- Sariak eskudirutan.
- Udalak beste laguntza lerro batzuen bidez diruz lagundutako jarduera bereziak.
- Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.
- Elkartearen barne funtzionamenduaren gastuak, eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak.

#### 4. artikulua. Eskatzaileak

4.1. Irabazteko xederik gabeko edozein elkarte edo partikularrek eskatu ahal izango du dirulaguntza, 2024. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan programa edo jardueraren bat sustatu edo gauzatu nahi badu, Artziniegako udalerrri osoarentzat onura publikoa edo gizarte interesa duten jarduerak sustatze aldera, eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Egoitza soziala Artziniegan egotea.
- Pertsona juridikoa bada, haren estatutuek beren-beregi jasotzea haren xedea interes orokorrekoa eta zerbitzu publikorakoa dela eta irabazteko xederik gabe sortu dela.
- Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Elkartearen ekintza eremua Artziniega izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan erregistratuta egotea.
- Dirulaguntzaren onuradun izateko debekurik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Eskatzailea partikular bat bada, jardueraren onura publikoa edo interes soziala justifikatzen duen azalpen memoria aurkeztu beharko du.

#### 4.2. Debekuak:

- Ez dute dirulaguntzarik jasoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elkarte edo entitateek.
- Ezin izango dute parte hartu aurreko ekitaldietako dirulaguntzak justifikatu ez dituzten elkarteek edo Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan jasotako arrazoietatik eratorritako zenbatekoak itzuli gabe dituztenek.

#### 5. artikulua. Eskaerak

5.1. Eskaerak aurkezteko epea: hogeit hamar egun balioduneko izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

5.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira udalaren web orrian: <https://www.artziniegakoudala.eus/eu/>.

Eskaerak Artziniegako Udalean eta egoitza elektronikoaren bidez jaso eta entregatu ahal izango dira.

#### 5.3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

##### 5.3.1. Pertsona fisikoek aurkezten dituzten eskaerarako:

- NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean eman ez bada).
- Zinpeko adierazpena, elkarte mantentzeko edo jarduera hori egiteko beste erakunde publiko edo pribatuaren bati beste dirulaguntzaren bat eskatzeari edo beste dirulaguntzaren bat jasotzeari buruzkoa. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman den edo ez zehaztu beharko da.
- Administrazio eskumendunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Artziniegako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio eskumendunari, hain zuzen, adierazten duena eskatzaileak egunean dituela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (4. eranskina).
- Jardueraren onura publikoa edo interes soziala justifikatzen duen azalpen memoria.

### 5.3.2. Elkarateek aurkezten dituzten eskaerarako:

– Eskaera bere izenean edo elkaratearen izenean sinatzen duenaren NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada).

– Elkaratearen IFZren fotokopia, dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada.

– Elkartea Artziniegako Elkarateen Udal Erregistroan alta emanda ez badago, izena eman beharko du dirulaguntza eskatzen duenean, eta horretarako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: entitatearen estatutuen fotokopia, legez eraturta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarateen Erregistroan erregistraturik dagoela egiaztatzeko agiria eta IFZren egiaztagiria.

### 5.4. Eskaera:

Hauek aurkeztu beharko dira:

- 1. eranskina: Behar bezala beteta eta sinatuta.
- 2. eranskina: Urtean zehar egin nahi diren jarduerak edo programak adina ale aurkeztu behar dira.
- 2.a eranskina: Federazio fitxen gastuak ordaintzeko dirulaguntza eskatu nahi duten kirol klubek.
- 3. eranskina: Behar bezala beteta eta sinatuta, ezarritako euskara- eta berdintasun irizpideak onartzeko.
- 3.1. eranskina: Eranskin horretatik fitxa bat bete beharko da dirulaguntza eskatu nahi den jarduera bakoitzeko.
- 4. eranskina: Artziniegako Udalari baimena emateko datuak egiaztatzen dituzten Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren Diruzaintza Nagusian.

Eskaera guztietan kontuan hartu beharko da, halaber, ezingo duela aurkeztutako programaren kostua gainditu honako hauen bitartez guztira lortzen den finantzaketak: dirulaguntzak eta beste iturri batzuk, beste administrazio edo erakunde batzuen dirulaguntzak, babesak, elkaratearen jardueren bidezko diru sarrerak eta partaideen ekarpenak.

Lortutako diru sarrera horiek guztiak diru sarrera gisa ere jaso beharko dira dirulaguntzaren justifikazio kontuan.

Udalak egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako eskaera hobeto baloratzeko.

Eskaera behar bezala eginda ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietakoren bat falta bada, pertsona edo entitate eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen dituzten, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean eskaera besterik gabe artxibatuko dela.

## 6. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntzaren berri ematea

Dirulaguntza jasotzen duten entitate guztiek udal finantzaketa horren berri eman beharko dute, udalaren logotipoa jarriz egiten dituzten material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), hedabide elektronikoen edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetako iragarkietan. Horretarako, Artziniegako Udalak udal logotipoa emango die pertsona edo entitate interesdunei.

Gainera, euskararen erabilerean udal ordenantzari jarraituz erabiliko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren berri emateko egiten diren kartel, testu eta agirietan.

Nahitaez sartu beharko dira, halaber, genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak. (Hizkuntza eta irudi inklusiboak).

Artziniegako Udalak diruz lagundutako jarduera guztien berri eman beharko da jarduera egin baino hamar egun lehenago, interesdun guztiek jarduera horietan parte hartu ahal izan dezaten.

## 7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Hauek dira pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak:

- Dirulaguntzak emateko oinarri den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarrera izatea abian den urtean.
- Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute onuradunek.
- Organo emaileari jakinaraztea bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko da, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.
- Dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, Udalarekiko zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela frogatzea.
- Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.
- Artziniegako Udalaren euskarari buruzko ordenantzan ezarrita dagoena betetzea, programa edo jarduera iragartzean nahiz gauzatzean.
- Berdintasun irizpideak betetzea, eta, beraz, hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea, jardueren berri ematean eta karteletan. Horretarako, udalak berdintasunaren arloko prestakuntza eta aholkularitza tekniko jarraitua antolatuko du elkarteentzat.
- Udalak berdintasunaren arloan antolatzen dituen prestakuntza jardunaldietara joatea, elkartei laguntza indibidualizatua eta adostua emateko prozesuaren barruan, honako helburu hauekin:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.
- Estatutuak aldatzea, genero ikuspegia jaso dezaten.
- Zuzendaritza batzordeak aldatzea parekideak izan daitezen.
- Elkarteen jardueretan indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea.

## 8. artikulua. Balioespen irizpideak

Dirulaguntzak emateko kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- Proiektuaren hedadura (jarduera egiteak zenbat pertsonari ekarriko dion onura).
- Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna eta egonkortasuna.
- Euskarazko jarduerak egitea.
- Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna izatea; eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak, eskatutako zenbatekoaren aldean, eta baliabide eta finantzabideak bilatzeko egiten duen ahalegina.
- Programaren eta proiektatutako jardueren bideragarritasuna.
- Aurkeztutako balantze ekonomikoa.

– Berdintasun eta dibertsitate irizpideak, kasu hauetan:

- Diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak genero ikuspegia kontuan hartzen badu diagnostikoan, helburuetan, jardueraren garapenean edo justifikazio memorian.
- Jardueran kontuan hartzen badira emakumeen egoera, premia, interes, jomuga eta arazo espezifikoak.
- Jarduerak genero estereotipoak eta rolak aldatzen laguntzen badu.
- Jarduerak zaintza lanak sustatzen baditu gizonen artean, edo aitek eta seme-alabek jarduerak elkarrekin egitea sustatzen badu.
- Jarduerak haurrak batera zaintzeko sistemak aurreikusten baditu, gurasoek jarduera egitea ahalbidetzeko, eta jarduera egiten bada norberaren bizitza eta familiakoa bateragarriak izatea ahalbidetzen duten ordutegi eta lekuetan.
- Onuradunen gutxienez ehuneko 40 emakumeak badira.

#### **9. artikulua. Ebazteko organo eskuduna**

Instrukzio prozedura eta epaimahaia dirulaguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitakoak izango dira.

#### **10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea**

Eskaerak ebazteko eta pertsona edo entitate eskatzaileei ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza emateko ebazpenak nahiz dirulaguntza ukatzekoak, denak jakinaraziko dira.

#### **11. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa**

##### 11.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo entitate eskatzaileek dirulaguntzaren justifikazioa beranduenez 2025eko urtarrilaren 10ean aurkeztu beharko dute. Epe horretan aurkeztu beharko dira dirulaguntza le-rroei dagozkien faktura guztiak, ordainketak egin izanaren frogagiriak, lortutako diru sarreraren informazioa, jardueraren inguruko kartelak eta dagozkion eranskinak, behar bezala beteta eta izenpetuta.

##### 11.2. Dirulaguntzak justifikatzea:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez Udalak emandako diru kopurua bakarrik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen moduan.

##### 11.3. Justifikazio sistema:

Justifikazioan honako hauek jaso beharko dira:

- 5. eranskina aurkeztu beharko dute pertsona edo elkarte eskatzaile guztiek.
- 6. eranskina (Bat entregatu beharko da egindako jarduera bakoitzeko, behar bezala beteta. Jarduera bakoitza justifikatzen duten eranskinek zer egin den jakiteko balio dute, eta, beraz, gertatutakoa zehatz-mehatz azaldu beharko da).
  - Egindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpulsatuak.
  - Federazio fitxei dagokionez, laguntza eskaeraren hartzaile diren eta Artziniegan erroldatuta dauden pertsonen zerrenda.
  - Ordainagiriak: Fakturaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa izango da kasuan kasuko merkataritza establezimenduak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilu bat jartzea eta, horren gainean, eskuz egindako sinadura; edo, bestela, enpresak sinatutako idazkia, identifikatzen duen fakturaren ordainketa eskudirutan jaso duela adierazten duena. Ordainketa banku transferentzia bidez egiten bada, egiaztagiria erantsi beharko da. Nahitaez banku transferentzia bidez egin beharrekoak dira 2.500,00 eurotik gorako ordainketak.
- Jardueraren berri emateko erabilitako kartelaren, liburuxkaren eta abarren ale bat.

– Artziniegako Udalaren dirulaguntza jaso duen elkarte batek, dirulaguntzaren ordainketaren ondoren jakiten badu jarduera horretarako beste erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, berehala aurkeztu beharko du udaletxean erakunde horren aitorten bat eta dirulaguntzaren zenbatekoa, behar bezala sinatuta, diruz lagundutakoaren soberakina Udal Diruzaintzan sar dadin.

– Aurkeztutako fakturen guztirako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako proiektu zein jarduera burutzen ez bada, onuradunak horren berri emango dio Udalari, gainerako dirua Udal Diruzaintzan sartzeko edo, bestela, emandako dirulaguntza murrizteko.

#### 11.4. Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ez ematea:

Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ematen ez bada, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira, berandutze interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluko 1. apartatuan ezarritako eran.

#### 12. artikulua. Ordainketa

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 80, dirulaguntza ematea ebazten den unean.
- Gainerako dirulaguntza, aurreko puntuan aipatutako justifikazioa aurkeztutakoan.

#### 13. artikulua. Ez-betetzea eta itzulketa prozedura

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko oinarri hauetan edo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan jarri diren baldintzak betetzen ez baditu, edota aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, errebokatu egingo da dirulaguntza eta onuradunak itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

#### 14. artikulua. Garapena eta interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, Informazio Batzordeak txostena eman eta gero.

Oinarri hauetan jasotako guztiari dagokionez, udal dirulaguntzak ematea arautzen duen Artziniegako Udalaren ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio”

Bigarrena. Gizarte, kultura eta kirol jardueretarako dirulaguntzen 2024ko deialdia onesta eta hogeit eguneko epea irekitzea, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eskabideak aurkezteko.

Hirugarrena. Dirulaguntzak honako aurrekontu aplikazio hauen kontura ordainduko dira: 330.481.002 «Kultura jarduerak», 6.000,00 euroko kredituarekin, eta 341.481.002 «Kirol jarduerak», 4.000,00 euroko kredituarekin.

Dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da dirulaguntza ematea ebazten den unean.

Laugarrena. Organo eskudunak, instrukzio organoaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Bosgarrena. Erakunde edo pertsona eskatzaileei dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Artziniega, 2024ko otsailaren 19a

*Alkatea*

*JOSEBA VIVANCO RETES*


**ARTZINIEGAKO GIZARTE, KULTURA ETA KIROL  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024**
**1. ERANSKINA: ESKAERA OROKORRA**

<b>ERAKUNDE ESKATZAILEA</b>		
<b>HELBIDEA</b>		
<b>IFK</b>	<b>POSTA ELEKTRONIKO:</b>	<b>TELEFONO ZENBAKIA</b>

<b>ESKABIDEA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK</b>		
<b>IZEN-ABISENAK</b>		<b>NAN</b>
<b>HELBIDEA</b>		
<b>POSTA ELEKTRONIKO:</b>	<b>TELEFONO ZENBAKIA</b>	<b>TELEFONO ZENBAKIA</b>

<b>ELKARTEAREN SORRERA DATA</b>	<b>ELKARTEAK UDALERRIAN LANEAN DARAMATZAN URTEAK</b>

<b>ELKARTEKIDEAK</b>				
<b>ELKARTEKIDE KOPURUA</b>	<b>EMAKUMEAK</b>	<b>GIZONAK</b>	<b>ARTZINIEGAN ERROLDATUTAKOAK</b>	<b>ARTZINIEGAN ERROLDATU GABEAK</b>

**DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

- 1. Eranskina: Eskaera Orokorra
- 2. Eranskina: Urtean zeharreko jarduerak eskatzea
- 2.1. Eranskina: Federazio-fitxak
- 3. Eranskina: Euskara eta berdintasun Kriterioak
- 3.1. Eranskina: Jarduera fitxak. (Ficha bat bete beharko da diruz lagundutako jarduera bakoitzeko)
- 4. Eranskina: Gizarte segurantzaren eta Ogazunaren diruzaintza orokorraren aurrean datuak egiaztatzeko baimena.

**Aurretik aurkeztu ez bada, erantsi beharreko agiriak:**

- NANaren fotokopia
- Elkartearen IFZren eta estatutuen fotokopia

Eskabide honetako datu guztiak egiazkoak direla adierazten dut. Era berean, deialdiko oinarri guztiak onartzen ditut, eta baimena ematen diot Artziniegako Udalari eskaera honetako edozein datu egiaztatzeko, dagozkion elkartearen erregistroak edo dokumentazioa kontsultatuz

Artziniega, 2024ko.....

Sinadura:





**ARTZINIEGAKO GIZARTE, KULTURA ETA KIROL  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024**

**2. Eranski SOLICITUD ACTIVIDADES A LO LARGO DEL AÑO**

**ERAKUNDEAREN DATUAK:**

**ERAKUNDE ESKATZAILEA:**

**PROIEKTUAREN AURREKONTUA:**

KONTZEPTUA	AURREKONTU ZENBATETSIA	ESTATUTAKO DIRULAGUNTZA	BESTE DIRULAGUNTZAK EDO DIRU SARRERAK	EKARPEN PROPIOA
Jarduera Soziokulturalak				
Eskertzek eragindako gastuak, gehienez 150 euro jarduera bakoitzeko				
Kirol Txapelketak, kirol erakustaldiak, mendi irteerak				
Sariak kirol txapelketetan (ezingo dira izan eskudirutan eta ezingo dira urtean 1.800 eurotik gorakoak izan)				
Federazio-fitxak, udalerrian erroldatuta dauden eta urtean zehar udalerrian diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiten dituzten pertsonentzat (eskaera osoaren %10 gehienez)				
Elkartearentzat ziurtagiri digitalak lortzeko eta berritzeko gastuak				
Feminismoaren arloarekin lotutako jarduerak				
Ekologia arloarekin egindako jarduerak				

\* Elkarre batek urtean zehar gehienez 3.500 euro eska ditzake.

AURKEZTUTAKO AURREKONTU GUZTIRA

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA GUZTIRA

ESPERO EDO EMANDAKO BESTE DIRULAGUNTZA EDO DIRU-SARRERA BATZUK

Data:

Sinadura:





**ARTZINIEGA GIZARTE, KIROL ETA KULTURA  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024**

**3. ERANSKINA**

**IRIZPIDEAK EUSKARAZ-----CRITERIOS EUSKARA**

Udalak diruz lagunduta elkarteek egingo dituzten aktibitateak iragartzeko karteletan hizkuntzek izango duten agerpena estandarizatzeko asmoz, hizkuntza ofizialen normalizazioa lortzeko erabiliko diren hainbat irizpideren aplikazioa proposatzen da.

Euskararen agerpena bermatuko da egindako kartel, errotulazio, iragarki, inprimaki eta antzeko elementu guztietan.

Irakurketaren ibilbideari jarraiki, euskara gaztelania baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testuak goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, gaztelaniazkoaren ezker aldean.

Testua zutabetan antolatutik dagoenean, euskarazko testua ezkerrekoan agertuko da.

Erabiltzen diren grafien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testua tamaina handieneko hizkietan egongo da.

Orrialde berean agertuko dira bi hizkuntzetako bertsoak, hots, ez da orrialde batean gaztelaniazkoa jarriko, eta beste batean edo atzeko aldean euskarazkoa, testu biak orri berean baizik

A fin de estandarizar la presencia de las lenguas en los carteles que publiciten las diferentes actividades subvencionadas por el Ayuntamiento y realizadas por las asociaciones se propone la aplicación de diversos criterios que serán utilizados para conseguir la normalización de las lenguas oficiales.

Se garantizará la presencia del euskara en la totalidad de carteles, rotulación, anuncios, impresos, etc.

Siguiendo el orden de lectura, el euskara aparecerá en una ubicación anterior al castellano. Es decir, cuando la disposición sea de verticalidad, el euskara se encontrará encima del castellano y, de ser horizontal, el euskara a la izquierda del castellano

Cuando sea un texto planteado en columnas, la de la izquierda será ocupada por el texto en euskara.

De existir una variación en los tamaños de las grafías usadas la de mayor tamaño será la de la versión en euskera.

Aparecerán en la misma hoja las versiones en ambas lenguas, es decir, no se presentará una hoja exclusivamente redactada en castellano y otra, diferente o en el dorso, en euskara.

**BERDINTASUN IRIZPIDEAK-----CRITERIOS IGUALDAD**

**ELKARTEETAN GENERO IKUSPEGIA  
TXERTATZEKO IRIZPIDEAK**

Hizkera. Hizkera inklusiboa izango da, denok, emakumeak eta gizonak bistaritzen dituena.

Irudietan, pertsonak agertzekotan, emakumeak eta gizonak izango dira, eta estereotipoen lotutako irudirik ez da erabiliko.

Elkarteen zuzendaritzetan, emakumeen parte hartzea

bultzatuko da, gizonezko gehiago egonez gero.

Epaimahaia ere parekideak izango dira, hau da,

emakumeak eta gizonak egongo dira.

Ekintzak antolatzeko orduan, kontuan izango dira

emakumeak egindako ekarpenak bistaritzea eta beraien parte hartzea bultzatuko da.

**CRITERIOS PARA INCORPORAR  
PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LAS**

El lenguaje será inclusivo, para que visualicemos tanto a mujeres como hombres.

En las imágenes, si aparecen personas, que sean mujeres y

hombres, descartando imágenes estereotipadas.

En las juntas de las asociaciones, fomentaremos la participación de las mujeres en el caso de que haya más hombres.

A la hora de elegir jurado, tendremos en cuenta que sea

paritario, esto es, que haya mujeres y hombres.

Cuando se organicen actividades, se tendrá en cuenta

visibilizar las aportaciones realizadas por las mujeres así como fomentar su participación.

Data:

Sinadura:



ARTZINIEGA GIZARTE, KIROL ETA KULTURA  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024

**3.1 Eranskina: ESKABIDEA. JARDUERAREN FITXA**

Jardueraren edo gastuaren izena			
Jarduera egingo den data:			
Nori zuzenduta dago jarduera?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Haurtzaroa	Gazteria	Pertsona helduak
Jardueraren deskribapena: Zer egitea aurreikusten da, non, noiz, nola...?			
Lortu nahi diren helburuak			
Jardueraren publikizitatea egiteko erabilitako hizkuntzak	Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>	Bi hizkuntzak <input type="checkbox"/>
Jardueran erabilitako hizkuntzak	Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>	Bi hizkuntzak <input type="checkbox"/>
Parte-hartzaileen kopurua	Emakumeak		Gizonak
Beste dirulaguntza batzuegatiko diru sarrerak			
Babesleztzatiko diru sarrerak			
Partaidetza-kuotengatiko sarrerak			
Beste batzuk:			
Aurreikusitako gastuak			

*Jarduera edo gastu bakoitzeko fitxa bete beharko da.*



**GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZA OROKORRAREN ETA FORU  
OGASUNAREN AURREAN DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA**

**4. ERANSKINA:**

Andrea/Jauna

.....

....., NAN zenbakiarekin: .....

elkarteko.....Presidentea/

Idazkari giza. ....IFZ

zenbakiarekin: .....

BAIMENA EMATEN DUT:

Artziniégako udalari, Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eska

diezaiola .....

elkartean erakunde horietan egin beharko ordainketak egunean ote dituen jakiteko informazioa.

Artziniégan, 2024ko.....

Sinadura:



**ARTZINIEGA GIZARTE, KIROL ETA KULTURA  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024**

**5. Eranskina: DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA OROKORRA**

**ERAKUNDEAREN DATUAK:**

ERAKUNDE ESKATZAILEA:		
HELBIDEA		
IFK	POSTA ELEKTRONIKO	TELEFONO ZENBAKIA

**JUSTIFIKAZIOA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK:**

IZEN-ABIZENAK		NAN
HELBIDEA		
POSTA ELEKTRONIKO	TELEFONO ZENBAKIA	TELEFONO ZENBAKIA

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

- 5. Eranskina: Justifikazio orokorra
- 6. Eranskina: jarduera-fitxak. (Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko jarduera- fitxa bat bete beharko da).
- Kartelak, Udalaren babesa argi eta garbi erakusten duten dokumentuak.
- Fakturak eta ordinagiriak
- Federazio-fitxen kasuan, Artziniegan erroldatuta dauden eta lehiatzen diren pertsonen zerrenda.

SORTUTAKO GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA

EMANDAKO DIRULAGUNTZA

EMANDAKO BESTE DIRULAGUNTZA EDO DIRU- SARRERAK:

Artziniegan, 2024ko .....

Sinadura:



**ARTZINIEGA GIZARTE, KIROL ETA KULTURA  
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZA 2024**

**6. Eranskina: EGINDAKO JARDUERAREN FITXA**

Jardueraren izena:					
Zein egunetan egin den:					
Nori zuzenduta egon da:	Hautzaroa	<input type="checkbox"/> Gazteria	<input type="checkbox"/> Helduak	<input type="checkbox"/> Gizarte osoa	<input type="checkbox"/>
Jarueraren deskribapena eta balorazioa:					
Lortu diren helburuak:					
Jarueraren publikitatea egiteko erabilitako hizkuntzak	Euskara	<input type="checkbox"/> Gaztelania	<input type="checkbox"/> Bi hizkuntza	<input type="checkbox"/>	
Jardueran erabili diren hizkuntzak	Euskara	<input type="checkbox"/> Gaztelania	<input type="checkbox"/> Bi hizkuntza	<input type="checkbox"/>	
Parte-hartzaileen kopurua	Emakumeak:		Gizonak:		
Jardueraren gastuak:					
Jardueraren diru-sarrerak:	Beste dirulaguntzak	Babesleak	Kuotak	Beste batzuk	

**GASTUEN BANAKAPENA:**

KONTZEPTUA	HORNITZAILEA	FAKTURA ZENB.	FAKTURA DATA	FAKTURA GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>				

Jarduera bakoitzeko fitxa bat bete beharko da, eta ahalik eta informazio gehienarekin bete. Lortutako diru-sarreraren kontzeptuan, zenbatekoak eta horiek lortzeko iturriak zehaztu beharko dira.